

RAMON y CAJAL KONTRATUEN 2023ko DEIALDIA

a) INTERES-ADIERAZPENA AURKEZTU NAHI DUTEN IKERKETA TALDEENTZAT INFORMAZIOA

UPV/EHUk eskaini beharreko interes-adierazpenen hautaketa

UPV/EHUk plaza kopuru mugatua eskainiko du deialdi honetan. Ramón y Cajal ikertzaile bat hartzeko interesa duten ikertaldeek beherago zehaztutako dokumentuak bidali beharko dituzte pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera, **2024ko urtarrilaren 15eko 08.00ak baino lehenago**:

1. **"Interes-adierazpena"** dokumentua, Ikerketaren Errektoreordetzaren web orrian eskuragarri dagoena. Dokumentu honen atal guztiak bete behar dira.
2. **Hautagaiaren CVA.**
3. **Hautagaiak sinatutako erantzunkizunpeko adierazpena**, Zientzia legearen 22.artikuluak araututako kontraturik izan duen ala ez adierazten (eredua web orrian dago eskuragarri). Kasu bada kontratuaren iraupena zehaztu beharko da.

UPV/EHUko kontaktua:

Ikerketa taldeek interes-adierazpenen inguruko zalatzak pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera zuzendu ditzakete. Mesedez, mezuaren gaian adierazi: "Ramon y Cajal 2023".

b) INFORMAZIOA DEIALDIAN PARTE HARTU NAHI DUTEN IKERTZAILEENTZAT

Laguntzen ezaugarriak:

494 laguntzetarako deialdia egin da; horietatik **477 txanda orokorrekoak** dira, beste **10 %33ko** edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko izango dira, eta **7** autonomia-erkidegoetako nekazaritza eta elikagaigintza ikerketako zentro publikoetan kontratatzeko (RyC-INIA-CCAA). Erreserba orokorreko txandatik **80** laguntza espezifiko gordetzen dira talentua

erakartzeko, bere jarduera profesionala atzerrian garatzen duten ikertzaileak sar daitezen sustatzeko.

Gainera, **50.000 euroko laguntza gehigarri orokorra** emango zaio onuradun bakoitzari ikerketa jarduera gauzatzearekin zerikusi zuzena duten gastuak ordaintzeko, I+Gko zentroan bere lanpostura sartu ondoren. **Talentua erakartzeko** laguntzen kasuan, aipatutako laguntza gehigarriaren zenbatekoa 70.000 euro handituko da, **120.000 euro**koa izango da guztira.

Kontratuen ezaugarriak:

Kontratuen iraupena gehienez ere **5 urtetarako** izango da. UPV/EHU-n hasiko diren onuradunek jasoko duten ordainsaria UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen negoziazio mahaiaren akordioan ezarritakoen arabera izango da, doktore-aurreko kontratua eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sistemara sartzeko kontratua duten aldi baterako ikertzaileen araudia egokitzeari buruzkoa, 2021eko abenduaren 16an Gobernu Kontseiluak berretsi zuena.

Eskaera egiten duten pertsonen betekizunak:

Eskatzaileek [deialdiaren oinarrien 6. artikuluan](#) zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte.

Eskariak aurkezteko epea:

**2024ko otsailaren 1eo 14:00ak arte; epe bakarra bai eskatzaileentzat bai UPV/EHU-
rentzat.**

GARRANTZITSUA:

Ikertzaileek beraiek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean. Ikertzaileek aurkeztutako eskariak **ez dute beharko UPV/EHUko lege ordezkariaren onarpenik.**

Ikertzaileek eskaera aurkezteko modua:

Eskaera modu independentean aurkeztuko dute ikertzaileek eta I+G guneeek. Beraz, eskatzaileek urrats hauek eman beharko dituzte:

1. Izena eman behar da Eskatzaileen Erregistro Bateratuaren (RUS) "Ikerlariaren erregistroa" atalean, [hemen](#)
2. Bete eskabide orria honako aplikazio honetan: <https://sede.micinn.gob.es/ryc/>
3. Eskaera erregistratu, deialdiaren 12.2b) artikuluan deskribatutako bideetako batetik.

MCI-ko kontaktua:

Eskatzaileek MCI-i kontsultak egin ahalko dizkiote esteka honen bidez: https://ciencia.sede.gob.es/pagina/index/directorio/utilidad_contacte_con_nosotros

Telefonoa: 912 582 852

Informazio gehiago: [Esteka](#)